# Zurriolako Ataria

69. alea 2019-09-13

## Groseko ikastolak Gros du patiotzat

Katalunia plaza geureganatu eta Ikastolako gela irekia bihurtu genuen asteazkenean. Naturaltasun osoz, Gorputz Heziketa eskola bertan egin genuen gustura.



## LH4koak Saguesen

Ikastolan hasi berri eta honez gero gelaz kanpo ere disfrutatzen ari gara. Aste honetan bertan LH4koak Saguesen izan dira, eguraldia eta lagunarteaz gozatzen.



## Arte Batxilergokoak Tabakaleran

Arte Batxilergoko ikasleek ere urteroko bisitaldiei ekin diete. Oraingo honetan Batxi1ekoak Tabakaleran izan dira Vivian Maier "*Argazkilari errebelatua*" erakusketarekin ikasten/gozatzen.



## GKAIkoak Zuhatzan

Ikastolako handienek ere gustura asko hasi dute ikasturtea. Lanbide Heziketako ikasleek Zuhatzan bizi izan dituzte ikasturte berriko lehen lagun-giroko gau eta egunak, era guztietako ekintzen bitartez.



## Ategorrieta berria pausoz pauso

Aste honetan bertan Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onarpena eman dio Ategorrietako eraikin berria egin ahal izateko Ikastola eremuko hiri antolamendurako plan orokorraren aldaketa puntualari. (info +)



## Euskaraldiako datuak datorren astean

Aurten Euskaraldiarik ez dela izango kontutan hartuta eta piztutako sugarra itzal ez dadin, datorren astean argitaratuko ditugu iazko udazkenean egindako ekimenaren datuak. Datuok ekimenean parte hartu eta baimena eman zutenei helaraziko zaizkie. Guk datuak eman, norberak ondorioak atera ditzan.




ZURRIOLA IKASTOLA




Hau da DBH3ko ikasleek prestatu duten bideoa aurtengo Kilometroakeko Erronkan parte hartzeko. Sartu bertan eta botua emaiezue!

## OHARRAK / AGENDA:

- **Guraso bilera orokorrak:** Informazio berritua.
- **Baimen orokorrak:** Galdetegia.
- **Garraioa:** Zirkularra.
- **HH4:** Uliako lore-baratzak edo hondartzara. Goizpasa. Irailak 20. Zirkularra.
- **LH1-2:** Zinemaldia. Goizez. Irailak 24.
- **LH3-4:** Zinemaldia. Goizez. Irailak 25.
- **LH5-6:** Zinemaldia. Goizez. Irailak 26.
- **DBH1:** Guraso bilera orokorreko txostena.
- **DBH1:** Ikasturte hasierako irteera. Irailak 19-20.
- **DBH3-4:** Eguerditan ateratzeko baimenak.
- **BATXILERGOA:** Ikastolatik irtetzeko baimenak.
- **XAKEA:** Ikasturtearen hasiera: Irailak 16.
- **ARTEZKARITZA KONTSEILUA:** Bilera. Irailak 16.
- **ZURRIMENDI - MENDI TALDEA:** Iraileko irteera. 19-20 ikasturteko irteerak.
- **JANGELA:** Iraileko menua.
- **EUSKARA KLASEAK GURASOENTZAT:** Zirkularra.
- **Groseko Haurtxokoa & Gaztelekua:** Iraileko programazioa.







**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587